

Etzidir Martinez Inescola - I
D(3)H. 2^{da} Zikloa
3^{er} maila
Lizama Jaskolo

Xarelan

44

AURKIBIDEA

Sarrera	4
Grabazioaren transkripzioa	5
Euskara batuan	7
Informazioa	9
Leitzako euskara:	
✓ Bustidurak	10
✓ Bokale aldaketak	10
✓ Kontrakzioak	10
✓ Aldaketa fonetikoak	12
✓ Hitz konposatuak	12
Bibliografia	13

Karobia, aspaldi desagertu zen ohitura, nola edo ala lerro hauen bidez 'berpiztu' nahi duguna. Oraindik gelditzen zaizkigu eraikin hauen arrastoak hainbat eta hainbat lekuetan, Nafarroa mailan, iparraldean gehienbat. Lehen hor aritzen ziren jo eta su lanean karea egiteko asmoz, gauza askotarako balio zuelako. Gaur egun berriz, hau ordezkaten duen produktu mordoa daukagu, eta nik uste dut, penagarria dela horrelako ohitura bat galtzea, eta etorkizunean ezagutu ere egingo ez dutena. Hori dela eta aukeratu dut gai hau, ez bakarrik interesatzen zitzaidalako, baizik eta gure herrialdeko kultura aberastea puntu bat delako. Ez al da garrantzitsua gure arbasoek zer egiten zuten, nola bizi ziren jakitea? Azken batean, beraiengatik gaude gu hemen, eta beraiengatik egonen dira gure seme-alabak ere.

Hizkuntzari dagokionez, badakigu Nafarroan gehienbat galdu zitzaigula, eta bere 'berrerabiltze' hori oso zaila egiten ari zaigula denoi. Lizarran, euskara batua hitz egiten da, baina nire ustez horrek ez du jendearengan jakinmin berezirik sortzen, ezta nigan ere. Baina Leitzako euskara (beste batzuen artean) berezia da, edo hala ikusten dut nik behintzat. Gaur egun ezin da horrelako euskararik edonon aurkitu Nafarroan, Leitzan bai, ordea, eta horrek indar gehiago ematen dit lan hau idazteko, ikusteak oraindik ere badagoela bere euskalki propioa hitz egiten duen herririk, ez Lizarran bezala, galdu ondoren ez baitzen berreskuratu.

Leitzako euskara, Leitzako jendea. Ikastolan bada irakasle bat, Sabino Arribilaga Sagastibeltza, idatzi hau burutzen lagundu didana. Bera izan da bere herriari buruzko informazioa eman didana, eta hango hizkuntzaren ezaugarriak esplikatuz dizkidana. Liburuetan ere informazioa badago, karobi edo karoizuloa egitea lehen eguneroko gauza zela eta oso lan gogorra zela baieztatzen diguna (hitzaren erabilera hainbat esalditan, beronekin egindako konparazioak...).

KAROI ZULOA

Oain dela berroien bat urte arte itten tzen karea Leitzeko baserritan.

Garai beten, baserri askotan izaten tzien karoizuloak, beño, oaiñ, nekez aurkittuko giñuke bat eo beste. Geienak lurreken estali zittuen, azindan bat eroriko ote zen beldurrez eo, ta estali etzienak berriz, lar tarten ta sasipetan izkutatuk eonen die.

Lan gorra izaten tzen au.

Famillikoak bakarrik prestatzen tzuenen, illebete batzutan ioal aitzen tzien lanen, eurketan ta arriketan.

Beste batzutan berriz, peonak artzen tzien ta mantenu truke itten tzuen lana.

Askotan elkarri launduz itten tzien lan oik denak. Auzokoak biltzen tzien etxe batekoai launtzeko ta urrengo urten berriz, beste baserri eten iñen tzuen, ta olaxe txandaka.

Karea itten hasi beño len, karoizuloa prestatu bear izaten da. Karoizuloa etzezaken eozeiñek iñ. Argiñek aitzen tzien lan ortan.

Aurrena, zulo aundi et itten tzen. Sei eo zortzi metro izaten tzittun gutxi gora bera alturen ta lau bet metroko zabalera.

Beian zabaltxeoa ta goien juntoxeoa izaten tzen.

Arri klasea re propioa izaten tzen. Buelta guzin arrie jartzen tzitzion, arrikin indeko pareta izaten tzun. Len esan doten bezela arri klase eokie izaten tzen, erretzen ez tena, jakiñe.

Karoizuloai beiko alden ate ttiki et uzten tzaio eurre sartzeko, ta len attatu ten bezela, paita artzen tzen gora, ta naiko alture artzen tzunen itxi itten tzen.

Karoizuloa ongi iñezkeo, urte askotako balio izaten tzun.

Beiñ karea ittea pentsatu ezkeo, aurrena kare arrie ekarri bear izaten tzen mendittik. Iruroien bat gurdi bearko zien banaz beste.

Eurre re asko bear izaten tzen, beste ainbeste gurdi bai. Eozein eurrek balio do, beño, obena paboa da.

Karoizuloan beiko alden eurre sartzeko tokie utzi bear da. Ta gero, karoizulo guzie, kare arrikin betetzen da.

Eur guzie karoizuloan ondoan euki bear izaten tzen. Bein sue emanetzkeo, gau teun lau eo bost motill aitzen tzien errepatzen ta eurre sartzen. Karea itten tzekien motillek izaten tzien, karea itten ongi ikasik, eurre noiz sartu bear tzen ongi zekienak, be tamañen sartzeko.

Pixkeka-pixkeka, kare arrie autstu itten tzen, ta, pille jetsi ala, goiko aldetik kare arri geixeo sartu bear izaten tzen.

Kare arrie noiz erretzen tzen ongi iarri bear tzen. Ta bein bear bezela erretzen tzenen, karea ongi ifie zeanen, sue kentzen tztzion ta oztutzen uzten uzten tzen eun betzutan.

Ondoren, karea karoittik ateatzen asten tzien. Itzaiek aitzen tzien lan ortan.

Karea alorren zabaltzen tzen ta kozkorren bat gelditzen baldin bazen e, eurie itten tzunen, ezetasun orrekin be gise zabaltzen tzen.

Karea asko erabiltzen tzen alorretako zomorroak iltzeko, batez e barek eta olakoak.

Banabar landarei ta patatai re botatzen tztizioan.

Karea etzen alorretan bakarra erabiltzen, beste erabillera batzuk e izaten tzittun.

Etxek zuritzeko re balio izaten tzun. Ur pixkoatekin nastu, ta, itten tzen masa orrekin etxek zuritzen tzien, naiz barrendek naiz kanpotek.

Ukulluko linpieza itteko re aproposa izaten tzen. Azindetan gaitzen bat satzen bazen, ukullue garbitzeko erabiltzen tzen, lurre ta paitak ongi-ongi iurtziz

KAROBIA

Orain dela berrogeiren bat urte arte egiten zen karea Leitzako baserrietan.

Garai batean, baserri askotan egoten ziren karobiak, baina, orain, nekez aurkituko genuke bat edo beste. Gehienak lurrarekin estali zituzten, aziendaren bat eroriko ote zen beldurrez edo, eta estali ez zirenak berriz, lar tartean eta sasipetan ezkutatuak egonen dira.

Lan gogorra izaten zen hau.

Familiakoek bakarrik prestatzen zutenean, hilabete batzuetan agian aritzen ziren lanean, egurketan eta harriketan.

Beste batzuetan berriz, laguntzaileak hartzen ziren eta mantenu truke egiten zuten lana. Askotan elkarri lagunduz egiten ziren lan horiek denak. Auzokoak biltzen ziren etxe batekoei laguntzeko eta hurrengo urtean berriz, beste baserriren batean eginen zuten, eta horrela, txandaka.

Karea egiten hasi baino lehen, karobia prestatu behar izaten da. Karobi zuloa ez zezakeen edozeinek egin. Harginak aritzen ziren lan horretan.

Aurrena, zulo handi bat egiten zen. Sei edo zortzi metro izaten zituen gutxi gora behera altueran, eta lau bat metroko zabalera.

Behean zabalxeagoa eta goian estuxeagoa izaten zen.

Harri mota ere berezia izaten zen. Inguru guztian harria jartzen zitzaion, harriarekin egindako pareta izaten zuen. Lehen esan dudan bezala, harri mota egokia izaten zen, erretzen ez dena, jakina.

Karobiari beheko aldean ate txiki bat uzten zaio egurra sartzeko, eta lehen aitatu dudan bezala, pareta hartzen zen gora, eta nahiko altuera hartzen zuenean, itxi egiten zen.

Karobia ongi eginez gero, urte askotarako balio izaten zuen.

Behin karea egitea pentsatuz gero, aurrena, kare harria ekarri behar izaten zen menditik. Hirurogeiren bat gurdi beharko ziren batzaz beste.

Egurra ere, asko behar izaten zen, beste hainbeste gurdi bai. Edozein egurrek balio du, baina, hoberena, bagoa da.

Karobian beheko aldean egurra sartzeko tokia utzi behar da. Eta gero, karobi guztia, kare harriz betetzen da.

Egur guztia karobiaren ondoan eduki behar izaten zen. Behin sua emanaz gero, gau eta egun lau edo bost mutil aritzen ziren zaintzen eta egurra sartzen. Karea egiten zekiten

mutilak izaten ziren, karea egiten ongi ikasiak, egurra noiz sartu behar zen ongi zekitenak, bere neurrian sartzeko.

Pixkanaka-pixkanaka, kare harria hautsi egiten zen, eta, pila jaitsi ahala, goiko aldetik kare harri gehiago sartu behar izaten zen.

Kare harria noiz erretzen zen ongi igarri behar zen. Eta behin behar bezala erretzen zenean, karea ongi egina zegoenean, sua kentzen zitzaion eta hozten uzten zen egun batzuetan.

Ondoren, karea karobitik ateratzen hasten ziren. Itzainak aritzen ziren lan horretan.

Karea alorrean zabaltzen zen eta kozkorren bat gelditzen bazen ere, euria egiten zuenean, hezetasun horrekin bere gisa zabaltzen zen.

Karea asko erabiltzen zen alorretako zomorroak hiltzeko, batez ere bareak eta horrelakoak.

Babarrun landareei eta patatei ere botatzen zitzaion.

Karea ez zen alorretan bakarrik erabiltzen, beste erabilera batzuk ere izaten zituen.

Etxeak zuritzeko ere balio izaten zuen. Ur pixka batekin nahastu, eta egiten zen masa horrekin etxeak zuritzen ziren, nahiz barrutik nahiz kanpotik.

Ikuiluko garbiketa egiteko ere aproposa izaten zen. Abereetan gaixotasunen bat sartzen bazen, ikuilua garbitzeko erabiltzen zen, lurra eta paretak ongi-ongi igurtziz.

Jakin, badakigu karobia egitea garai batean ohizkoa zela, baina ez Euskal Herri guztian. Jasotako datuen arabera, batipat iparraldean egiten ziren horrelako eraikuntza moetak, eta horren adibide garbia, Gipuzkoan (adibidez) dagoen karobi pila da. Nafarroan, ezin ditzakegu edonon aurkitu, iparreko herrietara joaten bagara soilik apreziatu ditzakegu. Nahiz eta orain gehienak hautsita edo estaliak egon, sasoi batean bere lana egin, eginen zuten, ez izan dudarik.

Azkeneko hau ere froga dezakegu, hainbat eta hainbat liburutan karobiei buruzko idatziak badaudelako, eta esatera zaharretan ere hitz hau aurki dezakegulako.

Adibidez:

- Iztuetak, "Gipuzcoaco provinciaren condaira edo historia" honako hau ipini zuen, 1847.ean: Txit gitxi izango da Gipuzkoan karobi bat txiki edo handi egosiko ez debanik.
- Ezaera zahar ezagunak: Jesus amorioaren karobi egina / Karobikoa baizen lan gaiztoa da gari ebakitzekoa Karobi ondoa, beti bero (*Ultzamako goi nafarra*).

Txikitatik entzun dugun hitza da hau, bere esan nahiarekin erlazionatu ez badugu ere. Nori ez digute ikastolan honako bertsoa erakutsi?

*Ikusi nuanean
nik zure ahoa
iruditut zitzaidan
karobi zuloa.*

Hain ezaguna egiten ari zaigun ohituraren inguruan ere, badago hiztegi nahiko zabala, orain apenas erabiltzen ez duguna.

Niri adibidez, 'karobi haga' izenak ez dit ezer esaten, baina ziur nago nire aurrekoek ezagutu dutela karobiko erre hautsak astintzeko belarridun haga luze hori. Berdin gertatzen zait 'karobi aitzur'-arekin ere, kinten luzedun aitzurrarekin, alegia. Ateari ataka deitzen ziotela ere, ez nekien.

Baina, hain garrantzitsua al zen karobi bat egitea? Baietz dirudi. Hau egin ondoren, honen omenean jai bat ospatzen zelako. Izen askorekin da ezaguna, hona hemen batzuk: *karobi eztei, karobi eztai, karobi eztegu eta karobi zambra*.

BUSTIDURAK

- Argiñek: arginak (12)
- Attatu: aitatu (19)
- Aukittuko: aurkituko (2)
- Beñ: bein (22)
- Beño: baino (2/11)
- Eozeiñek: edozeinek (12)
- Famillikoak: familiakoak (6)
- Giñuke: genuke (3)
- Illebete: hilabete (6)
- Iñ: egin (12)
- Iñe: egina (35)
- Iñen: eginen: egingo (10)
- Iñezkeo: eginez gero (21)
- Itten: egiten (1/8/9/11/13/20/29/32/42)
- Jakiñe: jakina (18)
- Karoittik: karobitik (36)
- Mendittik: menditik (22)
- Motill: mutil (29)
- Motillek: mutilak (29)
- Oaiñ: orain (2)
- Pille: pila (32)
- Ttiki: txiki (19)
- Tzittun: zituen (13/41)
- Zittuen: zituzten (3)

BOKALE ALDAKETAK

- Altur: altura (20)
- Arrie: harria (16/22/32/34)
- Batekoai: batekoei (9)
- Beño: baino (2/11/24)
- Bet: bat (14)
- Beten: batean (2)
- Betzutan: batzuetan (35)
- Die: dira (4)
- Do: du (24)
- Doten: duten: dudan (17)
- Et: bat (13)
- Eten: batean (10)
- Motillek: mutilak (29)
- Pille: pila (32)
- Pixkeka: pixkaka (32/32)
- Sue: sua (28/35)
- Tamañen: tamainan (31)
- Eurie: euria (37)
- Eurre: egurra (24/26/29)
- Giñuke: genuke (3)
- Gise: gisa (38)
- Goien: goian (15)
- Guzue: guztia (26/28)
- Illebete: hilabete (6)
- Indeko: egindako (16)
- Iñe: egina (35)
- Jakiñe: jakina (18)
- Leitzeko: Leitzako (1)
- Lurre: lurra (45)
- Tokie: tokia (26)
- Zeoanen: zegoanean (35)
- Paboa: bagoa (25) -kontsonante aldaketa da, kasu berezia-

KONTRAKZIOAK

- Aitzen: aritzen (3/6/12/29/36)
- Ala: ahala (32)
- Alden: aldean (19/26)
- Alorren: alorrean (37)

- Altura: altuera (20)
- Altura: altueran (14)
- Arrikin: harriarekin (16/27)
- Askotako: askotarako (21)
- Ateatzen: ateratzen (36)
- Attatu: aipatu (19)
- Azindan: aziendaren: abereren (3)
- Azindetan: aziendatan (44)
- Banabar: babanabar: babrrun (40)
- Banaz: batatz (23)
- Barek: bareak (39)
- Barrendek: barrutik (43)
- Baserritan: baserrietan (1)
- Batekoai: batekoei (9)
- Be: bere (30/38)
- Beian: behean (15)
- Beiko: beheko (19/26)
- Beño: baino (2/11/24)
- Bera: behera (13)
- Berroien: berrogeiren (1)
- Beten: batean (2)
- Die: dira (4)
- E: ere (37/39)
- Eo: edo (3/4/13/29)
- Eokie: egokia (17)
- Eonen: egonen: egongo (4)
- Eozein: edozein (24)
- Eozeinek: edozeinek (12)
- Errepatzen: erreparatzen: zaintzen (29)
- Etxek: etxeak (42/43)
- Euki: eduki (28)
- Eun: egun (35)
- Eur: egur (28)
- Eurketan: egurketan (7)
- Eurre: egurra (19/24/26/29/30)
- Eurrek: egurrek (24)
- Oik: horiek (9)
- Olakoak: horralakoak (39)
- Ortan: horretan (12/36)
- Paita: pareta (20)
- Paitak: paretak (45)
- Patatai: patatei (40)
- Re: ere (16/24/40/42)
- Ta: eta (4/4/7/8/10/14/19/20/26/29/32/34/35/37/40/42/45)
- Tamañen: tamainan (31)
- Familikoak: familiakoek (6)
- Geixeo: gehixeago. gehiago (33)
- Gifuke: genuke (3)
- Goien: goian (15)
- Gorra: gogorra (5)
- Guzin: guztian (16)
- Iarri: igarri (34)
- Ikasik: ikasiak (30)
- Indeko: egindako (16)
- Iñ: egin (12)
- Iñe: egin (35)
- Iñen: eginen: egingo (10)
- Ioal: igual: agian (6)
- Iruroien: hirurogeiren (23)
- Ittea: egitea (22)
- Itteko: egiteko (44)
- Itten: egiten (1/8/9/11/13/20/29/30/32/37/42)
- Itzaiek: itzaiak. idi zainak (36)
- Iurtziz: igurtziz (45)
- Izkutatuk: izkutaturik (4)
- Jakiñe: jakiña (18)
- Jetsi: jeitsi (32)
- Juntoxeoa: juntoagoa: elkartuagoa (15)
- Kanpotek: kanpotik (43)
- Karoittik: karobitik (36)
- Landarei: landareei (40)
- Lanen: lanean (6)
- Launduz: lagunduz (9)
- Launtzeko: laguntzeko (10)
- Len: lehen (11/17/19)
- Lurreken: lurrarekin (3)
- Nastu: nahastu (42)
- Oain: orain (1)
- Oaiñ: orain (2)
- Obena: hoberena (25)
- Tarten: tartean (4)
- Ten: duten: dudan (19)
- Tena: dena (17)
- Ukullue: ikuilua (45)
- Ukulluko: ikuiluko (44)
- Urten: urtean (10)
- Zabaltxeoa: zabalxeagoa (15)
- Zeoanen: zegoenean (35)
- Zien: ziren (23)
- Zuloai: zuloari (19)

→ **Kon trakzio aipagarria:** aurreko hitza bokalez bukatzen bada, hasierako 'b' ez da ahoskatzen (pixkoatekin: pixka batekin...)

ALDAKETA FONETIKOAK

→ Aldaketa honek, kontrakzioekin zerikusia du, eta arrazoi berberagatik dago bokale aldaketa hori ere.

- Et: bat (13/19)
- Eten: batean (10)
- Pixkoatekin: pixka batekin (42)

→ Aurreko hitza 'z' edo 'n'-z amaitzen denean eta hurrengo 'z'-z hasten denean, 'z' hori 'tz' ahoskatzen da:

- | | |
|--|------------------------------|
| - Etzen: ez zen (41) | - Tzittun: zituen (13/41) |
| - Etzezaken: ez zezakeen (11) | - Tzitzioan: zitzaion (40) |
| - Etzienak: ez zirenak (4) | - Tzitzion: zitzaion (16/35) |
| - Tzaio: zaio (19) | - Tzun: zuen (17/21/42) |
| - Tzekien: zekiten (29) | - Tzuen: zuten (8/10) |
| - Tzen: zen (1/5/13/16/17/20/20/22/24/28/30/32/33/34/34/35/37/38/39/42/45) | - Tzunen: zuenean (20/38) |
| - Tzenen: zenean (35) | - Tzuenen: zutenean (6) |
| - Tzien: ziren (2/6/7/8/9/9/12/29/30/36/36/43) | |

→ Aurreko hitza 'z'-z amaitzen denean eta hurrengo 'g'-z hasten denean, 'g' hori 'k' ahoskatzen da:

- Emanezkeo: emanek gero (28)
- Ezkeo: -z gero (22)
- Iñezkeo: eginez gero (21)

HITZ KONPOSATUAK

- Banabar: baba nabar: babarrun (40)
- Itzaiek: itzaia: idi zainak (36)

→ Nahiz eta bi hitzez osaturik egon, goiko bi adibide hauek ez dira bakarrik hizketan aritzean konposatzen, idaztean ere, horrelaxe egiten da.

BIBLIOGRAFIA

Orotariko Euskal Hiztegia
Luis Mitxelena

ELHUYAR, Hiztegi Entziklopedikoa

HARLUXET, Euskal Hiztegi Entziklopedikoa